



BIZIKLETA  
**TXANGOAK**  
**ARABA**<sub>KO</sub>  
IBILBIDE BERDEEN  
SAREAN

4. edizioa



## Obra Social "la Caixa"



Arabako Foru  
Aldundia  
Diputación  
Foral de Álava



Descarga de información y tracks:

[www.araba.eus/web/reditinerariosverdes](http://www.araba.eus/web/reditinerariosverdes)

### Edizioa

Arabako Foru Aldundia  
Ingurumen eta Hirigintza Saila

### Argazkiak

Quintas Fotografos

### Diseinua

Zados

### Koordinazioa eta edukia

Ingurumen eta Biodibertsitate Zerbitzua.  
Arabako Foru Aldundia

### Topografia

Gorosti Neurketak S.L.

### Inprimatze lanak

Arabako Foru Aldundia

### Edizioa

Gasteiz 2012

### Lege gordailua

VI-819/12

### ISBN

978-84-7821-798-4

Lehenengo edizioa:

2012ko abendua - 2.000 ale

Bigarren edizioa:

2013ko otsaila - 1.500 ale

Hirugarren edizioa:


















2014ko otsaila - 1.500 ale





BIZIKLETA  
**TXANGOAK**  
**ARABA**<sub>KO</sub>  
IBILBIDE BERDEEN  
SAREAN

## Ikonoak

-  ikuspegi panoramikoa
-  naturgune eta paisaia interesgarriak
-  zuhaitz berezia
-  alde arriskutsua
-  taberna-jatetxea
-  ermita
-  eliza
-  kultura interesa
-  trikuharria
-  eraikin berezia
-  iturria
-  ur kirolak
-  atsedenekua
-  hipika
-  kirol instalazioak
-  bizikleta alokairua
-  lotunea: ibilbidea

## Aurkezpena

**E**sku artean daukazu gida altxor baten mapa da, eta aurkitu nahi baduzu..... pedalei eragin behar! Nondik ibili aukeratu dezakezu, bai eta ibilbidearen zailtasuna ere. Gainera, ibilbide oso bat egin dezakezu edo, bestela, ibilbide bat hautatu eta tarterik gordeena bakarrik ezagutu. Aukeratzen duzuna aukeratzen duzula, saria ziur duzu.

Arabako lurraldean natura oso oparoa da. Arabako lurren ehuneko hogeita zazpi inguru Europako Natura 2000 Sare Ekologikoan sartuta dago, eta lurraldearen ehuneko hogeita hamarretik gora paisaia bereziak edo bikainak eta erregioko konexio biologikorako ezinbestekoak diren guneak dira.

Pasabide, espazio eta paisaia natural bikainen sisteman ibilbide berdeen sarea ehundu da Arabako naturaren eta paisaien oparotasuna biltzeko asmoarekin. Sare honetako zidorretatik eta bideetatik ibiliz Arabako bazterrik ederrenak eta bertako naturaren bikaintasuna ezagutu ahal izango dituzu, eta Lurraldearen izaera, historia eta kultura ere bai.

Ibilbideek Arabako askotarikotasuna ezagutzeko aukera ematen dute. Haietan zehar patxadaz ibilita baso ospeletan barna galduko zara, urtegi eta urmaelen ertzetatik pasatuko zara, amildegietara hurbilduko zara, ilunabarrak gozatuko dituzu, eta arranoak, miruak eta lertxun gorriak ikusi ahal izango dituzu (eta zorte apur batekin baliteke bisoi europarren bat ere ikustea). Araban denetariko sentrazioak daude: haranak eta ordokiak, zuhaitziak eta larreak, mendiak, ibaiak eta ur jauziak. Bakoitzak badauzka bere berezitasunak.

Gida honetan hamabost proposamen bildu ditugu, Arabako bazterrak eta balio kulturalak eta naturalak ezagutzeko aukera ematen duten hamabost ibilbide; Arabak berezkoa duen gizakiaren eta naturaren arteko uztartzea oinarritzat hartuta antolatu ditugu. Lasai gozatu beharreko hamabost ardatz. Zeuk ezarriko duzu erritmoa.

Arabak opari bat du zuretzat: bikaintasuna.



## GLOSARIOA

**B**izikletan txangoak egiteko gida honi esker Arabako naturgune eta bazter bereziak ezagutu ditzakezu. Badakizu zer esan nahi duten eremu berezi horien garrantzia adierazten duten terminoek?

**PARKE NATURALA:** Parke naturalak gizakiaren ustiapenak eta okupazioak asko eraldatu ez duten aldeak dira; ezaugarri hauek dauzkate: bazter ederrak; ekosistema bakanak edo fauna, flora edo formazio geologiko bereziak; lehentasuna behar dute botere publikoen jardunean. Araban bost parke natural daude, eta beste bat adierazpena jasotzeko bidean dago.

**NATURA 2000 SAREA:** Europar Batasuneko biodibertsitatea artatzeko guneen sare ekologikoa da. Hiru motatako aldeak daude: kontserbazio bereziko eremuak (KBE), Batasunaren garrantziko lekuak (BGL) eta hegaztientzako babes bereziko eremuak (BBE). Sare honen helburua Europako espezie eta habitat mehatxatuenak iraunaraztea da. Europar Batasunean ingurumena babesteko tresna nagusia da. Araban hogeita bi BGL, hiru KBE eta lau BBE daude. Horiek guztiak naturgune babestuak dira eta Europako Natura 2000 Sareko Arabako sare ekologikoa daude; lurraldearen % 27a hartzen dute.


















**BGLak, KBEak eta BBEak:** BGLak habitatak, espezieak eta biodibertsitatea artatzeko asmoarekin Europar Batasunaren Habitaten Zuzentarauaren bidez babestutako ekosistemak dira. BGL adierazitako alde bat KBE bihurtzen da kudeaketa eta artapen plana onartzen zaionean. BBEak Hegaztien Zuzentzaraua aplikatuz ezartzen dira.

**RAMSAR HITZARMENA:** 1971ko otsailaren 2an hezeguneei buruzko gobernu arteko hitzarmena onartu zen Irango Ramsar hirian. Ituna 1975. urtean jarri zen indarrean. Hasieran, Ramsar hitzarmenaren ardatza hezeguneei "uretako hegaztien habitatak diren aldetik" artatzea zen, baina harrezkero esparrua zabaldu da eta orain hezeguneei artapenaren eta zentzuzko erabileraren inguruko alderdi guztiak hartzen ditu kontuan.

**HEZEGUNEA:** Hezegunetzat hartzen dira padurak, zingirak eta zohikaztegiak, bai eta urez estalitako eremuak ere, naturalak zein artifizialak, iraunkorrak zein aldi baterakoak, geldiak zein lasterrak, gezak, gazikarak zein gaziak, itsasoko urak hartutakoak barne, baldin eta itsasbeheran sakontasuna sei metrotik gorakoa ez bada. Hezeguneei garrantzi handia dute ekologiaren aldetik: batetik, uraren erregimena arautzen dute; bestetik, espezie askotako animalien eta landareen habitatak dira. Gaur egun Arabako lau leku daude Nazioarteko Garrantziko Hezeguneei Zerrendan: Guardiako urmaelak; Añanako gatzagak-Caicedo Yusoko lakua-Arreo; Uribarri Ganboako urtegiaren adarrak; Salburua.


**PAISAIK BEREZIAK ETA BIKAINAK:** Edertasuna edo ondare baliotsua dela eta artatzeko, babesteko edo birgaitzeko neurriak aplikatu behar diren eremuak dira. Araban 62 bazter berezi eta bikain daude; lurraldearen % 57a hartzen dute.

 1	ITZULIA URIBARRI GANBOAKO URTEGIAREN INGURUAN	11
 2	GASTEIZ-ARLABAN Vasco-Navarro trenbideko ibilbide berdea	23
 3	GASTEIZ-LAMINORIA Vasco-Navarro trenbideko ibilbide berdea	33
 4	SAN TORIBIO-ACEDO Vasco-Navarro trenbideko ibilbide berdea	43
 5	GATZ HARANEAN BARNA	53
 6	ITZULIA: GASTEIZKO ERAZTUN BERDEA	63
 7	OKINAKO HAITZARTEA	77
 8	GORBEIAKO PARKE NATURALA	87
 9	VALDEREJOKO PARKE NATURALA	97
 10	IZKIKO PARKE NATURALA	107
 11	GASTEIZKO MENDIAK Betoñu haitzeko basabidea	119
 12	ARABAKO MENDIALDEKO ITZULIA	131
 13	GUARDIAKO URMAELAK GR-38TIK	143
 14	POSTEN ERREGE BIDEA	155
 15	NERBIOIKO PARKE LINEALA	167

## IBILBIDEAREN DESKRIBAPENA

**G**ida honetan 15 proposamen dituzu Arabako paisaiak eta natura ezohiko modu batean gozatzeko. Orrialde hauetan txangok egin aurretik kontuan eduki beharreko informazio guztia daukazu, ibilbideak antolatu eta ondo aprobetxatu ahal izan ditzazun.

Proposamen bakoitzak atal hauek dauzka:

- Ibilbidearen berri ematen duen sarrera laburra.
- Deskribapen xehatua, puntu kilometrikoak oinarritzat hartzen dituena.
- Jarraibide zehatzak zalantzak izan daitezkeen tokietan bide zuzena hautatzeko.
- Kontu handiarekin  ibili beharreko lekuei buruzko ohartarazpenak.
- Ibilbideko bazter erakargarriei buruzko datu jakingarriak eta azalpen laburrak.
- Oinarritzko ibilbidea luzatzeko edo osatzeko proposamenak: tarte gehigarriak edo lotuneei buruzko informazioa (ibilbideen arteko lotuneak, ibilbidearen eta GRen artekoak eta ibilbidearen eta inguruko ibilbide interesgarrien artekoak).


Txango bati ekin aurretik bizikleta prestatu behar duzu eta hainbat gauza hartu behar dituzu kontuan: ibilbidearen zailtasuna, zenbat denbora beharko duzun, zer urtarotan egingo duzun, arropa egokia daukazun, eta zer gehiago beharko duzun. Bakarrik ibiliko bazara, ez ahaztu norbaiti esan behar diozula nora zoazen. Araba zain daukazu.

Goza ezazu!





## IBILBIDEAREN PROFILA



Ibilbide bakoitzak bere grafikoa dauka; bertan distantziak eta maldak aztertu daitezke.

## LEKU INTERESGARRIAK



**NATURA  
ETA PAISAIA**



**KULTURA**



**AISIALDIRAKO  
GUNEAK**

Ibilbide bakoitzaren maparen ondoan leku interesgarrien berri ematen duen azalpen lauki bat dago: natura eta paisaia, kultura eta aisialdirako guneak. Ibilbidean bertan aurkituko direnak ez ezik, inguruetan dauden leku interesgarriak ere azaltzen dira.

## MAPA



Ibilbidearen maparen bitartez begiratu batean azter dezakezu nondik ibiliko zaren. Bertan, ondokoak azaltzen dira:

- Ibilbidea
- Testuan aipatzen diren puntu kilometrikoak
- Leku interesgarriak (natura eta paisaia, kultura eta aisialdirako guneak)
- Alde arriskutsuak (errepide tartearak) eta arreta berezia behar dutenak
- Lotuneak: beste ibilbide batzuk edo ibilbide interesgarriak
- Araba zeharkatzen duten mendiko ibilbide luzeak

## EZ GERATU IKUSI GABE...

Ibilbide bakoitzaren amaieran ibilbidean bertan edo inguruetan ikusi gabe utzi ezin dituzun bazter, eremu edo bitxikerien proposamenak aurkituko dituzu.

## IBILBIDEAK

ibilbidearen izena	Zailtasuna	Distantzia, guztira	Denbora, gutxi gora.
ITZULIA URIBARRI GANBOAKO URTEGIAREN INGURUAN	Txikia	43,8 km	4 ordu
GASTEIZ-ARLABAN. Vasco-Navarro trenbideko ibilbide berdea	Txikia	15,2 km	1,5 ordu
GASTEIZ-LAMINORIA Vasco-Navarro trenbideko ibilbide berdea	Txikia	18,5 km	2 ordu
SAN TORIBIO-ACEDO Vasco-Navarro trenbideko ibilbide berdea	Txikia	25,9 km	2,5 ordu
GATZ HARANEAN BARNA	Ertaina	9,8 km	1,5 ordu
ITZULIA: GASTEIZKO ERAZTUN BERDEA	Txikia	30,8 km	2,5 ordu
OKINAKO HAITZARTEA	1. TARTEA: Handia 2. TARTEA: Ertaina	21,6 km	3 ordu
GORBEIAKO PARKE NATURALA	1. TARTEA: Txikia 2. TARTEA: Handia	15,5 km	2,5 ordu
VALDEREJOKO PARKE NATURALA	Ertaina	11,6 km	1,5 ordu
IZKIKO PARKE NATURALA	1. TARTEA: Txikia 2. TARTEA: Handia	12,2 km	1,5 ordu
GASTEIZKO MENDIAK Betoñu haitzeko basabidea	Handia	22,7 km	2,5 ordu
ARABAKO MENDIALDEKO ITZULIA	Handia	35,5 km	3,5 ordu
GUARDIAKO URMAELAK GR-38TIK	Txikia	10 km	1,5 ordu
POSTEN ERREGEBIDEA	Ertaina	32,5 km	3 ordu
NERBIOIKO PARKE LINEALA	Txikia	8,7 km	1 ordu




Pasabidea Vasco-Navarro trenbideko Ibilbide Berdean.

Desnibel metatua	Lotuneak beste ibilbide batzuekin
407 m.	Vasco-Navarro trenbideko ibilbide berdea (GASTEIZ-ARLABAN) • GR-25 • GR-38
125 m.	Itzulia Uribarri Ganboako urtegiaren inguruan • Itzulia: Gasteizko eraztun Berdea • GR-25 • GR-282 • GR-38
208 m.	GR-25 • GR-38
85 m.	Arabako Mendialdeko Itzulia • Izkiko Parke Naturala • GR-282 • GR-1
250 m.	Gatz Haraneko ibilbide berdea • GR-1
220 m.	Vasco-Navarro trenbideko ibilbide berdea (GASTEIZ-LAMINORIA) • Gasteizko Mendiak • Posten erregebidea • GR-25
610 m.	Vasco-Navarro trenbideko ibilbide berdea (GASTEIZ-LAMINORIA) • GR-38 • GR-25 • GR-282
429 m.	GR-282
347 m.	GR-282
347 m.	Vasco-Navarro trenbideko ibilbide berdea SAN TORIBIO-ACEDO) • Arabako Mendialdeko Itzulia • GR-282 • GR-1
615 m.	Itzulia: Gasteizko Eraztun Berdea • GR-25 • GR-282
860 m.	Vasco-Navarro trenbideko ibilbide berdea SAN TORIBIO-ACEDO) • Izkiko Parke Naturala • GR-282 • GR-1
102 m.	GR-38
504 m.	Itzulia: Gasteizko Eraztun Berdea • GR-25 • GR-38
87 m.	---





**IBILBIDEEN  
LABURPEN  
MAPA**



## IBILBIDEEN LABURPEN MAPA

